

2015-12-23 ASTEAZKENA
44. ZENBAKIA
LURTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS



ALEA

arabako aldizkaria

URTEKARIA

2015



EGUBERRIETAKO KULTUR EGITARAUA

2015
2016

- Oientzero
- Haur Ikusbizunen XII. Erakustaldia
Mendizoratzeako Kiroldegia
- Florida Parkeko Jaiotza
- Butaka Txikia
Umeentzako ikusbizunak gizarte ebkieetan
- Musika kalean
- Abesbatzen Kontzertuak
- Izotz pista eta berrista
- Haurrentzako Eguberrietako Parkea
- Errege Magoak



Eskerrik asko

gurekin ikasteagatik eta
guri irakasteagatik



ikaeuskaltegiak.eu

Alea

2015 urtekaria

ALEAkideentzat oharra

Gabonetan ez da ALEARik argitaratuko. Hurrengo aldizkaria urtarilaren 15ean kaleratuko dugu eta, urte berriarekin batera, www.alea.eus informazio ataria jaioko da. Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

www.alea.eus

EDITORIAL

Aldaketen lekuko

Iritsi da atzera begirakoa egiteko ordua. Urtearekin batera jaio zen Arabako ALEA aldizkaria, eta astez aste izan da 2015ak eman duenaren lekuko. Orain, unea da gaurkotasunak erditzen dituen albiste guztien artean erabakigarriak izan direnak aztertzeke.

Perspektibaz begiratzeko ariketa horretan, hainbat mugarri antze-man daitezke: Gora Gasteiz mugimenduak elkarbizitzaren alde azterna utzi du eta, oihartzun horrekin lotuta, oposizioak Javier Maroto Gasteizko alkateztatik baztertu du. Arabako instituzioetan ere aldaketak eman dira, eta lehen aldiz lortu dute ordezkartza Podemos eta Ciudada-

nos alderdiek Batzar Nagusietan eta zenbait udaletxetan.

Sorpresak ekarri dituzte era berean Espainiako Gorte Nagusietarako hauteskondeek, Araban Ahal Dugu nagusitu baita PP, EAJ eta PSEren aurretik; EH Bildu ordezkartzarik gabe geratu da, duela lau urte Amaiur markarekin jeltzaileen aurretik hirugarren geratu zen arren.

Errekaleor Bizirik, Frackanpada eta Garoñaren kontrako plataforma izan dira gizarte mailan protagonista nagusietako batzuk, eta kultur arloan bereziki aipagarria da hainbat eragilek eta norbanakok sortu duten Arabako Kulturaren Mahaia.

Aldatu ez diren gauzen artean, genero indarkeria da larriena: hildako bat eta hilero 46 biolentzia kasu batez -beste utzi ditu aurten matxismoak Araban.

Ekonomian, gaitzak min ematen jarraitzen du, eta apalki behera egin duen arren, oraindik arabarren %15 inguru dago langabezian. Lana dutenen artean ere, ugariak dira gatazkak, eta borroka luzean dihardute Aernnova eta Condesa bezalako enpresetako beharginek.

Kirol mailan, makal hasi zuten urtea Baskoniak eta Alavesek, baina sasoiari jarri eta gora egin dute azken hila-be-teotan. Beste izen propio batzuk utzi ditu 2015ak, Mikel Landa txirrindula-

ria eta Gaztedi errugbi taldea kasu.

Euskarak ere badu zer ospatu: Oihaneder Euskararen Etxeak urtebete egin du, eta Hala Bedi Bi eta ALEA komunikabideek lurraldean gertatzen denaz euskaraz informatzeko aukera eskaini dute.

Oso laster, urtarri-lean, leiho berriak irekiko dira Arabako gaurkotasunaren berri egunero euskaraz jaso nahi dutenentzat: Hirinet webgunearen lekukoa hartu, eta www.alea.eus ataria jaioko da. Orduan, Arabako ALEA osatzen dugun guztiok -irakurleak, kolaboratzaileak, iragarleak- egunez egun izango gara urteak gure lurraldean emango duenaren lekuko.



ALEA aldizkaria ostiralero zure postontzian jaso nahi duzu? Egin zaitez harpidedun, eta 50 euroren truke, urtean 44 ale jasoko dituzu.

www.alea.eus
945 71 60 09
harpidetza@alea.eus

hirinet + **ALEA**
arabako aldizkaria

Urtarrilaren 15etik aurrera,
Hirinetek eta ALEAk bat egingo dute,
proiektu multimedia martxan jartzeko.

egin zaitez ALEAKIDE!!



Urtarriletik aurrera... **www.alea.eus**



Azaleko diseinua:
A. Mtz. de Luna

Alea

44. zk.



- 3 Editoriala.
6 Urtea argazkitan: aldaketa keinuak aurtengo irudietan.

POLITIKA

- 10 Araba, norabide politiko berrian.
15 Politika analisia: "Araba ez da oasi bat", Edurne Begiristain.

GIZARTEA

- 16 Gizarte: Gora Gasteiz mugimenduaren aztarna.
18 Gizarte analisia: "Hitzetatik ekintzetara", Edurne Trascastro.
20 Genero analisia: "Ez gara gutxi", E. Etxeberria, Z. Rodriguez.
22 Azpiegiturak: estreinaldi urtea Gasteizen.

EKONOMIA

- 24 Ekonomia analisia: "Ez da nahikoa", Unai Villalba.

KULTURA

- 26 Kultura: sortzaileak, susperraldirako lanean.
28 Euskara: Oihanederren lehenengo urtea, arrakastatsu.
30 Euskara analisia: "Batetik nahia (...)", Manuel Moreno.

KIROLA

- 32 Kirola: makal hasi, goraka bukatu.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora-pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Legre Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 4.500 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Estibx Ugarte, Edurne Begiristain, Edurne Trascastro, Eli Etxeberria, Zuriñe Rodríguez, Unai Villalba, Manuel Moreno eta Koldo Akordarrementeria.

ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Javier Maroto,
alkatetza galdu
zuen egunean.**

RAUL BOGAJO



Aldaketa keinuak

Bide berriak ireki ditu Arabak 2015ean: gobernuak eskuz aldatu dira, gizarte mugimenduek indartsu egin dute bultza eta kirol lorpen esanguratsuak utzi ditu urteak. **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Aurtengo argazki bilduman badaude mugarri bihurtu diren irudiak, horien artean nabarmenenak elkarbizitzarekin lotutakoak: batetik, Javier Maroto izan da urteko protagonista nagusietako bat, inoiz baino boto gehiago lortu dituen arren Gasteizko alkatezatzatik baztertu dutelako oposizioko taldeek, gasteiztarren bizikidetzaren arriskuan jar zezaketen mezuak zabaltzeagatik; horrekin lotuta, irudi koloretsuenak Gora Gasteiz mugimenduak utzi ditu, hiritarrek aniztasunaren alde mugiaraztea lortu baitu. Araban ematen ari diren bilakaeren bi erakusgarri dira, baina badaude beste hainbat feminismoa, ekonomia, hirigintza, kultura eta kirola bezalako gizarte esparruetan. Norabide berriak ireki dira 2015ean.



GORA GASTEIZ

Gora Gasteizen aztarna.

Etorkinak eta iruzurra lotzen dituzten mezuen aurrean, kalera atera ziren sei mila gasteiztar apirilaren 18an, elkarbizitzaren

eta aniztasunaren alde Gora Gasteiz ekimenak antolatutako jardunaldian. Marka bezala desegin bada ere, arrastoa utzi du mugimenduak.

Langileak, borrokan.

Estualdi urtea izan da enpresa askotako langileentzat, tartean Celsa Atlantic (Laminaciones Arregi), Condesa eta Cegasakoentzat. Aernnovako ia 600 langileen etorkizuna ere hari batetik zintzilik dago, enpresak Berantevillako lantegiaren aldeko neurriak hartzeko zain.



MANU ARAKAMA



GAZTEDI

Gaztedi, sarituta.

Errugbi barneratzailearen lehenengo mundu txapelketa jokatu dute aurten Britainia Handian. Bertan, Gasteizko Escor-Gaztedi taldeak saria jaso du, Down Araba-Isabel Orbe elkartearekin batera kirol barneratzailearen alde egiten duen lanagatik. Bradfordeko mundialean, zehazki, 25 taldekikdek parte hartu dute; horietatik bost Downen sindromea duten arabarrak izan dira.

Matxismoa, etenik gabe.

Hiru hildako utzi ditu aurten genero indarkeriak Euskadin, horietako bat Gasteizen: 29 urteko emakume bat hil zuen senarrak apirilaren 2an Ricardo Buesa kalean. Urtarriletik azarora bitartean, 372 genero biolentzia kasu eman dira lurralde osoan; batez beste, hilero 46. Aldundiaren datuek jaso dutenez, erasotzaile gehienek 31 eta 40 urte artean dituzte.



ALEA

Marka propio baten bila.

Nazioarteko merkatuan Arabako Errioxako ardoei lekua egiteko erronka esku artean, puri-purian egon da aurtun ardoen jatorri arabarra balioan jartzeko eztabaida, tartean jatorri deitura propioa sortzekoa ere. Azken helburu horrekin jaio zen urte hasieran Arabako Mahastien Lagunen elkarte.



QUINTAS



ALEA

Krearen alde, aldarria.

2007an eraiki zuten Krea Betoñuko komentu zaharrean, sorkuntza garaikideari lekua emateko. Zortzi urte eta 18 milioi euro gastatu ondoren, hutsik dago. Horren aurrean, Sos Krea aldarria egin zuten kultura arloko 30 arabarrek irailean. Egun, INTL Campus ekimen pribatuak diseinu eta moda campus bat ireki nahi du bertan; proiektua ezezaguna da oraingoz.



BILBO HIRIA



GASTEIZKO HERRI HARRESIA

Arabaren ere, ustezko ustelkeria kasuak.

Arabako ustelkeriaren mapa osatu du aurtun Adi elkarteak, balizko ustelkeria kasuen eta kudeaketa txarren berri emateko. Horien artean daude De Miguel auzia (argazkian), San Antonio kaleko bulegoak eta Hiriko kasua, baita Ihurreko depositua eta AP-1a ere.

Gazteen aurka, bortitz.

Segikoak izatea egotzita sei urteko kartzela zigorra ezarri zitzaizen hiru gazteren atxiloteta saihesteko, hainbat gazte herri harresia osatu zuten maiatzean Gasteizen. Ertzaintzak indarrez erantzun zien, eta salaketak ugaritu ziren.

Azkenik, geltoki berria.

Hogeita bi urtez izan da behin-behinekoa Gasteizko Los Herran kaleko autobus geltokia. Martxoaren 16an, azkenik, azpiegitura berriak atek ireki zituen Lakuan. Beste inaugurazio batzuk ere izan dira aurtan, tartean San Martin auzoko Udaletxe berria, azoka plaza (Abastos) eta Salburuko gizarte etxea.



SAIOA FERNANDEZ DE ARANGUIZ



"MIKEL LANDAREN LAGUNAK" TALDEA

Mikel Landa, txapeldun.

Italiako Giroko podiumean hirugarren postura igo zen Mikel Landa txirrindulari murgiarra maiatzan, Astana taldearekin. Espainiako himnoa entzutean txapela kendu ez zuelako polemika piztu zen. Sky taldearekin gaur egun, Arabako kirolari entzutetsuenetako bat bihurtu da.



BIZIDUN



ALEA

Lehenengo izarren parkea.

Iruña Okako Santa Katalina lorategi botanikoa Espainiako lehenengo izarren parkea bihurtu berri da, Kanarietako astrofisika institutuko Starlight Fundazioak hala izendatu ostean.

Trebiñu, nekaezin.

Arabako zortzigarren kuadrilla izateko lanean jarraitzen dute trebiñarrek. Aurtan, urrats berriak egin dituzte: instituzio guztiekin bilerak egin ondoren, amaitutzat eman dute hitzarmenen bidea, eta Kongresuak Enklabeen legea desblokeatu dezan lan egiten hasi dira.

Norabide berrian

Noranzko politikoa aldatu da aurten Arabako instituzioetan: boto gehien irabazita ere, PPK aginte makila galdu du Aldundian eta Gasteizen; Espainia mailako hauteskundeetan ere sorpresak izan dira, Podemos garaile izan baita lurraldean. **ESTITXU UGARTE** GASTEIZ

Tabuak hautsi zituen udal hauteskundeen osteko negoziazioak eta Gasteiz norabide politiko desberdin batean jarri zuen. Alderdi bozkatuenak udala gobernatu behar zuela zioen idatzi gabeko araua apurtu zen eta EH Bildu, Hemen Gaude eta Irabazi indar politikoen babesarekin hamasei urte ostean berreskuratu zuen EAJk Gasteizko alkatetza. Hirugarren indarra izanik Gorka Urtaran bilakatu zen alkate eta EAJk bere bost zinegotzirekin soilik osatu zuen Gasteizko Udal Guber-
nua.

Etorkinak diru sarrerak bermatzeko errenten bizkar bizi zirela haizateak harrotu zituen hautsak, eta horrek ekarri zuen Gora Gasteiz mugimenduaren sorrera. PPKo alkate Javier Marotoren diskurtso "xenofobo" eta "arrazista"-ren kontrako antidotoa izateko jaio zen plataforma. Aniztasuna eta elkarbizitza defendatzeko hain zuzen. Bere egin zuten Gora Gasteiz mugimenduaren leloa udal oposizioko talde guztiek eta Marotoren poli-

tika gelditzeko konpromisoa hartu zuten hauteskundeen atarian.

Nolanahi ere PP indarberrituta irten zen Gasteizko udal hauteskundeetan. Aurrekoan baino hiru mila boto gehiago lortu zituen: guztira 35.5000 (botoen %29a). Hala, Udaleko 27 eserlekuetatik bederatzi lortu zituen PPK baina gehien-
go absoluturik ez.

EH Bildu sei zinegotzirekin eta 23.300 botorekin oposizioko talde nagusia bilakatu zen eta Gasteizko udalean gobernu alternatiboa lortzeko prozesuaren gidaritza hartu zuen Maroto alkatetzatik irte-
narazteko helburu argiarekin. Azke-
nean aldaketarako behar ziren hamalau botoak *in extremis* lortu eta hirugarren indarraren hautagaia alkatetza izendatu zuten, PPren ospakizuna zapuztuz.

PSE-EEK sei eserlekuetatik bi utzi behar izan zituen maiatzeko hauteskundeen emaitzen ondoren eta, udal inbestidura saioan azken

orduko erabaki bat medio, zuri bozkatu zuen. Haatik, jeltzaleek eta sozialistek legegintzaldi ituna sinatu zuten uztailean eta aurki eztabaidatuko diren 2016. urteko aurrekontuak bi alderdien artean landu dituzte.

Akordioen beharra Aldundian

Gasteizen ez bezala maiatzeko foru hauteskundeetan lehen indarra izan zen EAJ Arabako Batzar Nagusietan. Hala ere ez zuen agintzeko gehiengo nahikoa lortu eta PSE-EEekin akordioa egin behar izan zuten Ramiro Gonzalez ahal-
dun nagusia izendatzeko. Aparteko aipamena merezi du Ahal Dugu-
ren indarrak. Zortzi

eserleku izan zituen alderdi berriak, eta laugarren indarra bilakatu zen. Alderdiaren emaitzek indar berri horren sendotasuna berretsi zuten.

51 eserlekuetatik 13 ordezkari eta 34.406 boto lortu zituen EAJk Arabako Batzar Nagusietan. Haren atzetik PPK 12 eserleku eta EH

Bederatzi ordezkari- tik bostera pasa da PSE Batzar Nagusietan



Miren Larrion eta Gorka Urtearan, jeltzalea alkate aukeratu zuten egunean.

RAUL BOGAJO

Bilduk 11 eserleku eskuratu zituzten. Podemos-Ahal Dugu, esan bezala, indarrez sartu zen zortzi ordezkarekin eta ordezkari bana lortu zuten Irabazik eta Ciudadanosek. Kolpe latzena PSEk hartu zuen bederatzi ordezkari izatetik bost izatera igaro baitzen.

Gutxiengoan egonda, elkarriketa eta adostasunerako dei egin zuten talde guztiei Ramiro Gonzale-

zek ahaldun nagusiaren makila hartu zuenean. Adostasunerako borondatearen lehenbiziko froga agintaldiko lehen aurrekontu proiektuaren negoziatzioan erakutsi behar du Gonzalezen foru gobernuak. Azaroan aurkeztu zuten 2016. urterako egitasmoa. Aurtengo luzapenarekin alderatuz, %3 handituko da gastatzeko duen dirua.

Aldaketa ugari herrietan

Herrialdeko herri nagusietan aldaketa ugari jazo ziren. Aginte maki-la eskuz aldatu zen Arabako udal-erri askotan, batez ere EAJren eta EH Bilduren artean. EAJk Agurain, Aiara eta Bastida irabazi zituen, Amurrioki eutsi zion baina Lapuebla eta Artziniega galdu zituen. EH Bilduk Audio, Legutio, Zuia eta Aramaiori eutsi zion, Artziniega irabazi zuen, baina Agurain, Aiara eta Asparreneko alkateak galdu.

PPk Guardia, Oion eta Mañuetari eutsi zion, eta galdu egin zituen Bastida eta Ekora. PSE-EEK Iruña Okari eutsi zion, Erriberabedian galdu zuen, baina Moreda eskuratu zuen. Plataforma independenteak gutxienez bederatzi udalerritan gailendu ziren.

Laudion alderdi bakar batek ere ez zuen lortu erabateko gehiengorik, eta

beraz, zerrenda bozkatueneko hautagaia izendatu zuten, EH Bilduko Natxo Urkixo. Koalizioak 2.902 boto jaso zituen eta ondorioz sei zinegotzi. EAJk ordezkari kopuru berdina lortu zituen 2.443 bozekin. Ezustea Omnia alderdi independenteak eman zuen -Ikune- lau eserleku lortu zituelako. Udalbatza eratzeko momentuan horrela gertatu zen: Bilduko 6 zinegotziek Natxo Urkixo hautagai independentistaren alde bozkatu zuten,

Bilduk 11 eserleku eskuratu zituzten. Podemos-Ahal Dugu, esan bezala, indarrez sartu zen zortzi ordezkarekin eta ordezkari bana lortu zuten Irabazik eta Ciudadanosek. Kolpe latzena PSEk hartu zuen bederatzi ordezkari izatetik bost izatera igaro baitzen.

Gutxiengoan egonda, elkarriketa eta adostasunerako dei egin zuten talde guztiei Ramiro Gonzale-

35.500

BOTO

Javier Marotok aurreko udal hauteskundeetan baino hiru mila boto gehiago lortu ditu aurtun Gasteizen: 35.500, botoen %29a. EH Bildu gelditu da bigarren (%19,5), EAJ hirugarren (16,6) eta PSE laugarren (%12). Lehen aldiz sartu dira Udalean Hemen Gaude- Podemos (%8) eta Irabazi koalizioa (Ezker Anitza eta Equo, %5).



**Javier de Andres,
Ramiro Gonzalez
agurtzen.**

RAUL BOGAJO

EAJko seiek Mikel Lasa hautagai jeltzalearen alde, PPko zinegotziek Mikel Lasa babestu zuten, Omnia-ko zinegotzia abstenitu egin zen eta azkenik PSEko biek Txaro Sarasuaren alde bozkatu zuten.

Laudioko Udaleko Gobernu Batzarraren parte izatea onartu zuten EAJk eta Omniak, EH Bildurekin batera. Talde politiko bakoitzak bi ordezkari ditu batzar horretan. Hiru taldeen arteko akordio

bat medio adostu zen osaera.

Oionen PPko Ruben Garridok irabazi bazuen ere jeltzaleekin berdinduta atera zen, lau ordezkari bakoitzak. EH Bilduk bi ordezkari lortu zituen eta giltza bilakatu. Herrialdeko instituzioetatik PP kanporatzeko konpromisoari eutsi zioten zinegotzi abertzaleek eta inbestidura saioan Eduardo Terroba EAJko alkategaiari eman zizkioten botoak Garridori udal makila kentzeko.

Agurainen Iñaki Berazak berreskuratu zuen aginte makila EH Bilduren lau urteko legegintzaldiaren ostean. 1987tik 2011rako sei legegaldietan izan zen agintari Beraza EA zein AGA plataformarekin eta EAJ-ren siglekin irabazi zituen maia-tzeko udal hauteskundeak. Azken lau urteetan alkatetzan izandako EH Bildu koalizioak baino zinegotzi bat gehiago eskuratu zuen Berazak eta ez zuen babesik behar izan bere proiektua aurrera ateratzeko.



Madrilera, Podemos garaile

Garaile argia izan da Podemos Araban Espainiako hauteskundeetan, botoen %27,01 eskuratu baitu (47.976 boto) eta bigarren indarrari, PPri, ia bederatzi puntuko aldea atera baitio. Hala, lau alderdien artean banatu dira eserlekuak Madrilgo Kongresurako: Podemos (Juan Lopez de Uralde), PP (Alfonso Alonso), EAJ (Mikel Legarda) eta PSE-EE (Javier Lasarte). Eta, aurreikuspenen kontra, EH Bildu ordezkariarik gabe geratu da; duela lau urte EAJk, PPK, PSEk eta Amaiurrek diputatu bana eskuratu zituzten, baina Podemosek lortu du eserlekua oraingoan Bilduren kaltetan (Iker Urbina). Senatuari dagokionez ere Podemos izan da garaile nagusi, hiru ordezkariarekin; PPK bat eskuratu du.



Juan Lopez de Uralde (eskuinean) izango da Podemosen Arabako ordezkaria. | ALEA

Hiriburuan, halaber, Juan Lopez de Uraldek zuzendutako hautagaitza izan da garaile nagusi (%27,6). Eta lurraldeko beste hainbat herritan ere Podemos gailendu da, besteak beste,

Gasteiz edota Laudion gailendu da Podemos

Laudio, Oion, Araia, Dulantzi, Langraiz, Agurain eta Araian. EAJk Amurriori eutsi dio, EH Bilduk Aramaio eta Legutiori, eta PPK Eltziego eta Bastidari.

Euskara behar dugu,
euskarak
behar gaitu!



**ZUIAko
UDALA**



VITORIA
GASTEIZ
green capital

SOLAS ALEAN

*zator eta bota
zure galdara!*
Ane
Irazabal-ekin

DATA: urtarrilaren 7an, osteguna

ORDUA: 19'00etan

TOKIA: Oihaneder Euskararen etxea

Gidaria:



Antolatzailea:

www.oihanedereuskararenetxea.eus



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO HARE ANTZERKIA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

EDURNE BEGIRISTAIN
KAZETARIA

Araba ez da oasi bat



Euskal Herria ez da oasi bat. Eta Araba ez da oasi bat. Gure herrialdean badago ustelkeria politikoa, amaitzeaz den urteak agerian utzi duenez. Ez dira kasu isolatuak, ez. Espainian bezala, gurean ere ustelkeria sistemikoa da; ez gara salbuespena. Aurten eztanda egin dute ustezko ustelkeria kasu ugari Araban: horietako asko lehendik ezagunak baziren ere, 2015. urtean justiziak auzibidean edo epaitzeko bidean jarri ditu. Adi elkarteak Arabako Ustelkeriaren Mapa osatu du aurten, eta bertan bildu ditu Arabako erakunde publikoei lotuta atzeman diren balizko ustelkeria kasuak eta gestio desegokiak. Kasu entzutetsuen artean daude De Miguel auzia, San Antonio kaleko bulegoak eta Hiriko auzia, baina badira beste hamaika ere: Krea, Iradier Arena, FCC, Swap-ak, Ihurreko depositua, Epsilon edota AP1, besteak beste. Zerrenda luzea da. Mingarria. Herritarrak sumintzeko modukoa.

Politikan dauka eragin handiena ustelkeriak. Araban ere bai. Bi adibide argigarri jarraian. Bat: 2005. urtean ezagutu zen De Miguel auzia bezala ezaguna den Arabako ustezko ustelkeria sarea. 26 pertsona inputatua daude, horietako gehienak Arabako EAJko kardugun ohiak. Besteak beste: Alfredo de Miguel Araba Buru Batzarreko kide ohi eta Arabako Aldundiko Tokiko Administrazioetarako diputatu ohi, Aitor Telleria ABBko kide ohi eta Koldo Otxandiano Arabako burukide eta Arabako Ongizate Institutuko zuzendari izandakoa. Arabako Probintzia Auzitegiak auzian inputatuta dauden aurkako ahozko epaiketa irekiko du aurki.

Bestea: Gasteizko San Antonio kaleko lokalen auzia. 2007an Gasteizko udal gobernuan zeudenak daude nahastuta bertan, alokairuan egindako ustezko irregulartasunengatik. Besteak beste: Alfonso Alonso Gasteizko alkate ohi eta EAeko PPko presidentea, Javier Maroto Ogasun zinegotzi orduan eta Gasteizko alkate gero, Idoia Garmendia zinegotzi ohi eta Fernando Arangiz zinegotzi ohi eta Kutxabankeko presidenteorde gaur egun. Espainiako Herri Kontuen Auzitegiak milioi erdi euroko fidantza jarri die guztiei, eta urtarilaren

20an alde zuzeneko audientzia bat egingo du kasua aztertzeko.

Azkenaldian gure inguruan izan diren ustezko ustelkeria kasuen erroak eta adarrak aztertzerakoan, faktore asko kontuan hartu behar dira: besteak beste, boterearen kontzentrazioa, alderdi politikoen enpresa bezala funtzionatzeko duten joera eta delitu txikiak bakarrik zigortzen duen zigor justizia egotea. Hori hala, sendatu daitekeen gaitza al da ustelkeria? Gaur gaurkoz txertorik ez dago, baina sendagarriak baditugu. Kode etikoak izan daitezke irtenbideak. Alderdien eta instituzioen jarduna kontrolatzeko tresnak uste baino eraginkorragoak dira, eta alderdi eta instituzio guztiek beharko lukete berea. Ez da gauza berria, Europako hainbat herrialdetan aspalditik dituzte

eta emaitzak izan dituzte. Horrez gain, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea beste era batera gauzatzeko bideak martxan jarri eta legedia zorroztu beharko litzateke, politikari eta erakundearen jarduna kontrolatuta, kontzientziak errazago astintzen

direlako. Ustelkeria politikoa amaitzeko tresnak baditugu, beraz. Martxan jartzea baino ez da falta, ustelkeriak etenik gabeko itogina izateari utz diezaiola, baita Araban ere.

"Ustezko ustelkeria kasu ugari eztanda egin dute Araban, tartean De Miguel, San Antonio eta Krea"





Kolore bizia

Gora Gasteiz izan da dudarik gabe 2015. urteko protagonista nagusietako bat; ehun elkartek baino gehiagok eta esparru guztietako pertsona ezagunek egin dute bat mugimenduarekin. **ESTITXU UGARTE** GASTEIZ

Bost hilabeteko ibilbide emankorra egin zuen Gora Gasteiz mugimenduak, 2014ko azarotik aurtengo apirilera arte. Alderdi Popularrak eta, bereziki, Javier Maroto Gasteizko alkateak gizarte laguntzen baldintzak gogortzeko eta iruzurra etorkinei leporatzeko abiatu zuten kanpainari aurre egiteko sortu zen. "Zuri-beltzean margotzen diguten hiria kolore guztiek osatzen dutela" erakutsi nahi izan zuen.

Ehun elkartek baino gehiagok, dozenaka gazte elkartek, arte kolektiboek, esparru guztietako pertso-

na ezagunek, eta sindikatuek bat egin zuten Gora Gasteizekin. Gasteizko Udalak berak babestu zuen ekimena eta oposizioko talde politikoek PPko udal gobernuari eskatu zioten utz ziezaiola "jatorriaren arabera" herritarrek "estigmatizatzeari", eta lehenetsi zitzala eskubide kulturalak.

Gizarte laguntzak, etorkinak eta iruzurra lotzen zituzten adierazpenak joan den udan egiten hasi zen Maroto alkatea. Orduz geroztik, diru sarrerak bermatzeko errentaren baldintzak gogortzeko saioa bultzatzen egon ziren Maroto eta

PP, eta helburu horrekin sortutako herri ekinaldi bat sustatu zuten.

PPren ekimenaren harira giroa gaiztotu zen hirian eta batez ere jatorri magrebtarreko bizilagunen egunerokoan eragina izan zuen. Horiek horrela, jipoiak, jarrera islamofoboak, irain arrazistak edo-

Apirilaren 18an kaleak kolorez bete zituzten gasteiztarrek, egun osoko mobilizazio jardunaldian





Milaka gasteiztar atera
ziren kalera
elkarbizitzaren alde.

GORA GASTEIZ

ta Afro elkartearen kontrako mehatxuak etorri ziren. Marotok sustatzen zituen bezalako jarrerak onartzeko prest ez zeudela nabarmendu zuen Gora Gasteizek. "Lau botoren truke pertsonak, eskubideak eta askatasunak gutxietsi, eta ustelkeria ezkutatzeke eztabaida faltsuak sortzeke

Azken agerraldia Javier Maroto alkate izan ez zedin eskatzeko egin zuen Gora Gasteiz mugimenduak

saioa egingo duzuen aldiro, aurrean izango gaituzue", esan zuten.

Bost hilabetez hamaika jarduerak bultzatu zituen Gora Gasteizek. Aipagarriena joan den apirilaren 18an antolatutako jardunaldia izan zen; Arabako hiriburuko kaleak bete zituen orduko hark ideia argiarekin: "Gasteizko irudi ofiziala aldatu nahi genuen". Egun horretan eta helburuak lortuta, bere bidea amaitutzat jotzea erabaki zuen Gora Gasteiz mugimenduak. Bost hilabeteetan indarturik atera zirela esan zuten: "Hiriak prestasun handiagoa du gaur kalera atera-

6.000

PERTSONA

Gora Gasteizek aniztasunaren eta arrazakeriaren aurkako mobilizazio eguna deitu zuen apirilaren 18an. Antolatzaileen arabera, sei mila pertsona inguruk hartu zuten parte egun osoko jardueretan, ezberdinen arteko elkarbizitzaren alde.



Bi gaztetxo, batukadan. | GORA GASTEIZ

tzeko, auzokideak laguntzeko eta gasteiztar guztion eskubideak defendatzeko, datozen lekutik datozela".

Azken agerraldi jendetsua egin zuen plataformak Gasteizko udal hauteskundeetan emaitzen harira Javier Maroto Gasteizko alkate izan ez zedin akordioa egiteko eskatzeko. Orduan Gora Gasteizek azpimarratu zuen hauteskundeetako emaitzek agerian utzi zutela herritarren gehiengoak PP ez gainerako alderdiei eman ziola botoa, PPren diskurtso "arrazista, xenofobo eta suemaileari" bizkarra emanez. Alderdi politikoek desafioari erantzun eta Marotori alkatetzaren ateak itxi zizkioten.

Gora Gasteizek hirian zabaldu zuen biderei eutsi dio orain gutxi Bizilagunak egitasmoak. Jatorri ezberdinetako Gasteizko familiak elkartu eta otordua elkarrekin egiteko ekimen xumearen bitartez familiak ezagutu eta estereotipoa aurreiritziak eraitsi nahi dituzte. "Kanpotik datozenak edo beste kultura batekoak izan eta bertan bizi direnak ezagutzea da gakoa; aurreiritziak desagiteko beste aukerarik ez dago, gerturatu eta ezagutzea", nabarmendu dute egitasmoan parte hartzen dutenek.

EDURNE TRASCASTRO
KAZETARIA

Hitzetatik ekintzetara



Hitzak hitz, gure ekintzak dira garrantzia dutena. Arabak argi du: zapatak jarrita, behar bezainbeste kilometro ibiltzeko prest dago. Barrutik, hiria eta herritarak aldatu nahi ditu, politikariak pausoak ematera bultzatuz. Araban kalea bizirik dago, eta kaletik ateratzen dira arazoak konpontzeko ekimenak. Hona hemen 2015ean Arabako gizarte mugimenduen ekimen nabarmen batzuk:

Aurten Gora Gasteiz hiriarren irudi erreala aldarrikatu du, zuri-beltzeko hiri batetik kolore askotako hiri batera pasatzeko. 2014ko azaroaren bukaeran jaio zen Gora Gasteiz ekimena, helburu argi batekin: mundu osoko pertsonen elkarrekin bizitzeko izan behar duten aukera defendatzeko eta, mezu arrazistak baztertuz, aniztasunaren balioa nabarmentzeko. Plataformak elkarteak eta herritarrak erakarri ditu, Gasteiz aniztasunez eta errespetuz betez. Apirilean eten zuen bere lana Gora Gasteiz markarekin, baina adi-adi dago, eztabaida faltsuak berriro sortuz gero hitza eta kolorea hartzeko prest.

Aztarna horri jarraituz, Gasteiz Irekia sortu da

"Fracking Ez plataformak 'Frackanpada' antolatu du aurten Subillan, putzuak egin nahi dituzten tokian"

aurten ere, pertsona errefuxiatu eta etorkinen aldeko inizatiba. Bere leloa honakoa da: *Ez ditza-gun harresiak eraiki: partekatu dezagun mahaia*. Beldurraren diskurtsoari aurre egin nahi dio Gasteiz Irekiak, eta gobernuari dagokien erantzukizuna bere gain hartzeko eskatu. Onartezinak dira gerra, gosea eta miseriaren atzaparretatik ihes egiten duten pertsonen irudi tamalgarriak. Europaren atarian pilatzen dira, eta atea itxita ditzute. Ate horiek zabaltzeko eta errefuxiatuei babesa eta harrera duina emateko lanean dihardu Gasteiz Irekiak-ek.

Bestalde, ingurumen osasungarri, iraunkor eta berdearen alde mugimendu ugari daude, adibidez Fracking ez Araba plataforma. Aurreko urteetan bezala, haustura hidraulikoaren kontra borroka egin du 2015ean ere. Plataformak argi du ezin dela frackinga baliatu, bizitzarako ezinbestekoak ditugun baliabideak babestu nahi baditugu, alegia, airea, lurra eta ura. Mezu hori zabaltzeko Frackanpada egin zuten uztailean Subilla Gasteizen; elkargune bat izan zen, heziketarako eta dibertsiorako. Karga sinboliko handia zuen aukeratutako



Hiritarrak, Etorkinen Egunerako oihalak josten. | GOIAN



Garoñako zentral nuklearraren aurkako agerraldi bat. | MANU ARAKAMA

lekuak. Izan ere, bertan daude fracking-aren bidez Euskal Herrian ustiatu nahi dituzte lehenengo putzuak.

Arabán, urterik urte, badugu beste borroka bat: Santa Maria de Garoña zentral nuklearraren behin betiko itxiera. Duela 44 urte zabaldu zuten, 1971n; zahartuta dago eta segurtasun arazo larriak dauzka. Hala eta guztiz ere, berriro ireki nahi du Espainiako gobernuak, eta gainera hilerri nuklearra eraiki. Zoritxarrez, Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua (CSN) ados dago, baina Arabako gizartea ez dago berririkiera onartzeko prest. Hamaika aldiz egin dute herritarrek zentrala ixteko aldarrikapena, bai kalean baita instituzioetan ere. Jakina, Garoñaren kontrako mugimenduak behin betiko itxiera lortu arte jarraituko du lanean.

Arabako gizarte mugimendua bizi baino biziago dago. Proposamen ugari aurki ditzakegu gizarte desberdina eraikitzeko, adibidez Errekaleor Bizirik mugimenduak hurbildu diguna. Gasteizko Errekaleor auzoa autogestioan oinarrituta biziberritzeko proiektua garatu dute hainbat gaztek. 1950eko hamarkadan eraiki zuten auzoa, baina urteen

joanarekin zahartuta, auzokideak beste auzo batzuetara joan ziren, Udalak trukean pisu berriak eskaini baitzizkien etxebizitza zaharrak bota eta berriak eraikitzeko asmoz. Bakar batzuk egin zioten uko Udalaren proposamenari. Azkenik, krisia medio, Udalak ez zuen aurrera egin hirigintza plan berriarekin, eta hutsik geratu ziren etxebizitzak. Gazte batzuk Errekaleor auzoko 26. zenbakiko ataria

okupatu zuten eta han jarraitzen dute, auzoa berpizteko lan eginez. Haien bidea oztopoz beteta dago, baina bizitzeko beste modu batzuk daudela erakusten saiatzen ari dira.

Eskubide bat da etxebizitza; betetzen ez den eskubidea. Ondo dakite Kaleratzeak Stop Arabakoek. Pobreziaren aurka lanean dihardute, Arabako bazterrak "etxe kaleratzerik gabeko herri" izendatu nahian. Gure gizartea nola mugitzen den erakusten duen beste adibide bat da.

Zenbakiak gora behera, 260 gizarte erakunde baino gehiago dauzkagu Araban, eta bestelako mugimendu pilo bat. Desberdintasunak desberdintasun, badago guzti-guztiekin erakusten diguten zerbait: gauzak beste era batera egin ditzakegula.

"Errekaleor Bizirik mugimenduak auzoa biziberritzeko autogestio proiektua garatu du"



Subilla Gasteizko Frackanpadako kideen agerraldi bat. | FRACKING EZ



Errekaleor Bizirik mugimenduko kideetako batzuk. | S. FDZ. DE ARANGUIZ

ELI ETXEBERRIA ETA ZURIÑE RODRIGUEZ
EKINTZAILE FEMINISTAK



Ez gara gutxi, ez da gutxi

Te berao mahaian eta artikulua idazteko prest! Ordenagailua piztu eta, hemerrotekaz lagunduta, urteko errepasoa egitera goaz. Lehenengo bilaketa eta, nola ez; uda, jaiak, erasoak, polemika eta gutxi ginela diote egunkariek. Baina, Elik tea esku artean izanda begirada konplize batez Zuriri esaten dio: gutxi gara? Zurik tea askatu barik: ez, ez gara gutxi! Teak oroitzapen onak dakarkigu burura eta hori ez da gutxi.

Gasteizen jaiotako emakumeak eta Gasteizen bizi diren emakume migratzaileak; gasteiz-tarrak alegia, bi aldiz elkartu gara aurtun. Martxoaren arratsalde horretan eta Gora Gasteiz egun historikoan *Te-encuentro* izeneko inizatibari hasiera eman genien. Eta ez da gauza makala, ez ginen gutxi izan.

Ehun emakume, eztabaidatzen, espazioa okupatzen baimena eta barkamena eskatu barik; arrazakeriari eta matxismoari aurre egiten, zuzenean, elkar ezagutzen hiri berdineko auzokideak baikara, gure desioak, nahiak eta zailtasunak elkarrekin partekatuz. Ez da gutxi. Jatorri eta izaera ezberdineko bizilagunak izan ginen Andra Mari Zurian eta Ramon Bajon sortu genuen espazio intimo zein politiko horretan. Identitate anitzekoak: beloa

zeramatenak, gona motza, saria; lesbianak garenak, heteroak, transak; frantsesez hitz egiten dutenak, arabiarrez, euskaraz, gaztelaniaz. Asko ginen, asko gara.

Elkar ulertu ginen arazo barik eta ez da gutxi. Gainera, ez gara gutxi; asko laztantzen eta ukitzen garen arren hotza dugu. Gasteiz hotza da eta gauza asko egin behar ditugu; hortaz, etxe bat behar dugu; Emakumeen Etxea. Horretan, ere, izan gara aurtun.

Etxe bila. Biltzeko, jardunaldiak antolatzeko, eztabaidatzeko, musukatzeke eta jai eredu berdinzaleak proposatzeko, guztiona izango den etxea, babestuta sabai beraren azpian.

Saiatu gara, nola ez. Twitter-eko kontua zein Facebook-a prest daude, baina oraindik etxerik ez. Bizitzako paradoxak. 2016an lortuko al dugu? Guk badaezpada lekua proposatu genuen, arkeologia museoa zena, eta inauguratu genuen, hiru hilabeterako egitaraua prestatuta genuen eta. Ez da gutxi.

Baina etxerik ez eta hori bai dela gutxi. Eskerak Sukubo dagoela. Hiriko Alde Zaharrean. Ekintzaz, bizitzaz eta plazerez beteta egon da urte osoan, genero disidente guztiei irekitako bilgunea. Hitzaldiak ostiral arratsaldeetan eta larunbata goizetan; dokumental eta liburu feministen aurkez-

"Emakumeen Etxea lortzeko lanean aritu gara aurtun Gasteizen; 2016an lortuko al dugu?"

"Pakistango emakumeen elkarte bat, Las Otras kolektiboa eta Mujeres en la Diversidad sortu dira"





**Emakumeak, pasa den
apirilaren 18an**

ALEA

penak. Eztabaidatzeko eta errealtate askea eraikitzeke gune erreal eta irekia Gasteizko bihotz bihotzean eta hori ez da gutxi.

Berokia jantzi, tea harraskan utzi eta berriz kalera. Kurdistandik Emakumeen Mundu Martxa Gasteizera ailegatu zen urrian. Bost urtetik behin egiten den martxa da eta aurten gure artean izan dugu. Bere leloak dioen bezala ozen oihukatu genuen, *martxan jarraituko dugu aske izan arte*. Eta martxa hitza idazterakoan, berriz ere, begirada konplizeak. Gurea bai martxa... ekainaren 28an jolas parke bat eraiki genuen lesbianok Andre Mari Zurian, arauetatik kanpo egoteaz harro gaudela aldarrikatuz; eta martxoaren 7an emakume, bollera eta transentzako jai erraldoia egin genuen Gazte-txean, beldurra lekuz aldatuko dela ozen esanez gaueko manifa izan ondoren!

Eraso homolesbotransfoboiei aurre egin diegu, plazeraren autogestio tailerrak antolatu... indarkeria matxista egon den bakoitzean kalera irten, ez...

ez da gutxi!

Bizirik gaude Gasteizen eta Bizirik izeneko elkarteak jaio da ere aurten gure hirian. Indarkeria sexista jasan duten emakumeek sortu dute; indarkeria pairatzen ari diren beste emakumeekin harre-mantzeko, aliantzak sortzeko eta elkarren artean laguntzeko. Eta, hori bai, ez dela gutxi. Are gehiago, Pakistango emakumeen elkarte bat ere sortu da, Las OTRAS Kolektiboa, deskolonizazioa zein bazterreko feminismotik datorren taldea, Mujeres en la diversidad... ez, ez gara gutxi! Gero eta gehiago gara, guztiei ongi etorri!

Gutxi ez bada ere asko dugu egiteko oraindik datorren urtean, baina asko izango gara, ziur. Motorrak berotzeko gure lehenengo proposamena apirilaren 9an Euskal Herriko Mugimendu feministak deituriko manifestazio nazionala da. Gasteizen izango da eta jadanik horretan ere gabiltza buru belarri lan eta lan Gasteizko feministak, beti bezala; ez da gutxi.



**ASSA
IKASTOLA**



**ikastolenelkartea
araba**

Udanezko mahatsa, geroko ardoa euskaraz ekinez, aurrera goaz

Idazkaritza@assaikastola.net • Faxe: 945-62 73 16
© 945-60 71 99 • assaikastola.blogspot.com • 01306 LAPUEBLA DE LABARKA

Estreinaldi urtea

Autobus geltoki berria, Salburuko gizarte etxea, udaletxe berria, Azoka plazaren berrikuntza, Europa jauregiaren eraberritzea eta Gasteiz etorbidearen erreforma izan dira aurtan Gasteiz aldatu duten proiektu nagusiak. **AITOR ALVAREZ** GASTEIZ

Azken urtean aldaketa handiak bizi izan ditu Gasteiz, azpiegiturei dago kienez; hainbat eraikin eta berrikuntza egin baitira hiriburuan. Aldaketa horien artean, bost proiektu nagusi nabarmendu daitezke hiriko eguneroko bizitzan daukaten eraginarengatik.

Autobus geltoki berria izan zen bost proiektu horien artean zabaldu zuten lehena. Los Herran kalean, 22 urtez, behin-behineko geltokia erabiltzen egon ondoren, azpiegitura berria behar zuten gasteiztarrek. Aldaketa handia ekarri zuen eta polemika handia sortu ere, Adolfo Suarez izena jartzeko proposamenaren eta kafetegia hainbat hilabetez atzerapenarekin irekitzearen inguruan, besteak beste.

Hala ere, polemika handiena sortu duen eta sortzen jarraitzen duen eraikina Salburuko gizarte etxea da. Ireki zutenetik sei hilabete igaro dira eta auzokideek agindutako baliabideak eskaintzen ez dituela salatu dute, eskalada egiteko boulderra edota igerilekurako txirristak, esaterako. Horrekin bate-

Eraikin berri ugari eta berrikuntza asko egin dira Arabako hiriburuan azkenengo urtean

ra, itogin ugari daudela adierazi dute, eta baita klimatizazio sistemak gehiegizko zarata egiten duela ere,

behar bezala isolaturik ez dagoelako. Arazo horiei irtenbide bat emateko, eraikinean erreforma berriak egingo dituela esan du Gasteizko Udalak. Horiek egin ahal izateko, beharbada gizarte etxea aldi baterako itxia beharrezkoa izango dutela aitortu egin dute.

Udaletxe berria aurtan inauguratu dute ere. Guztira, sei departamentu kokatu dituzte eraikin berrian, aurretik Arabako hiriburuan zehar sakabanatuak zeudenak: Ogasuna, Funtzio Publikoa, Ingurumen eta Espazio Publikoa, Hiri-gintza, Enplegua eta Teknologia Berriak.

Azoka plazaren (Abastos) berrikuntza aspaldiko eskaera zen baita ere. Eraikina berritu eta bertako komertzio txikiak txukundu

Arkitektura berritzailea du geltoki berriak.

ALEA





**Sarrera nagusian
behatoki berri bat
dauka Europak.**

QUINTAS

Bost proiektu

Autobus geltokia: martxoaren 13an zabaldu zuten; taberna udara arte ez zuten ireki, hala ere.

Salburuko gizarte etxea: maiatzaren 23an izan zen inaugurazioa. Erreforma beharrean dago, gabeziak dituelako.

Udaletxe berria: ekainaren 26an ireki zuten eta sei departamentu kokatzen dira bertan.

Azoka plaza (Abastos): erreforma uztaillaren 3an amaitu zuten. *Gastrotabernak* bi hilabete geroago ireki zituzten.

Europa jauregia eta Gasteiz etorbidea: bi urte eta erdi daramate lanean, eta Gasteiz etorbidekoak bukatzeke daude.

egin dituzte eta, horrekin batera, zortzi *Gastrotaberna* ireki dituzte. Taberna berritzaile horietan, besteak beste, pintxoak, tortillak eta hanburesak eskaintzen dituzte.



Azoka plaza berriaren sarrera. | ALEA

Horrez gain, italiar, japoniar eta mexikar sukaldaritzak dastatzeko aukera izango dute ere bertara hurbiltzen diren hiritarrek.

Azkenik, Europa jauregiak eta Gasteiz etorbidearen erreformek garrantzia hartu dute ere. Bi urte eta erdi daramatzate zonalde horretan eraikuntza lanak egiten eta urte hasierarako bukatuko dituzte. Eraberritze horien baitan, Europa jauregiaren zabalera handitu, fatxadaren lorategi bertikal bat jarri eta sarrera nagusian behatoki bat eraiki egin dituzte.

Gasteiz etorbideari dagokionez, oinezko eta txirrindulariek espazio gehiago irabazi dute, urmael berria dago gainazalean eta natur guneei espazio gehiago hartu dute, besteak beste.

CuadraBus

Erreserbak: 902 210 215

Bulego nagusia

Zankueta poligonoa z/g • Amurrio (Araba)
Tel.: 945-89 08 04 • Faxa: 945-89 22 15

Garellano autobus geltokia - Bilbo

Gurtubai, 1 • 48013 Bilbo
Tel.: 94-441 44 98 • Faxa: 94-441 63 81

Jundiz industrialdea - Gasteiz

Paduleta, 9 • 01015 Gasteiz (Araba)
Tel.: 945-27 71 90

info@cuadrabus.com

www.cuadrabus.com

UNAI VILLALBA
EKONOMIA IRAKASLEA

Batetik nahia, bestetik aukera



Lehendabizikoz "krisia" hasi zenetik langabezi tasaren jaitsiera egonkorra izan da 2015ean Araban. Bai, egia da, eta pozten naiz. Gasteizen %16,1etik %15era jaitsi da, Laudion eta Agurainen %18tik %16,2ra, eta pozten naiz, baina ez da nahikoa. Datu hauek aski ezagunak dira hauteskunde urtean izan garenez gero agintari politiko eta ekonomikoek azpimarratu ohi dituztelako euren lorpen handiak bailiran moduan. Baina Gasteizen oraindik 19.752 pertsona inguru langabe, Laudion 1.567 eta Agurainen beste 451 pertsona langabe daudela ahaztuko al dugu? Gazteen langabezi tasa, 25 urtetik beherakoena, %40koa dela jakinda entzungor izango al gara?.

Langabezi tasa jaitsi denez batzuek akaso esango dute bide onean goazela, baina abiadura falta zaigula. EAEko Barne Produktu Gordina ("ekonomia") 2014an %1,4 hazi zen, aurrean, 2015ean %2,7 haztea aurreikusten da, eta hazkunde tasa hau baino altuagorik ez da espero etorkizunean (2016an % 2,6-2,8 tartean). Hau da, "ekonomia" gehiago hazten ari da langabezia jaisten dena baino. Orduan, nora, noren eskuetara doa hazkunde hori? "Krisia" aurretik langabezia tasa %6koa bazen, orain dugun moduko hazkunde handiko beste 6-7-8 urte itxaron behar al ditugu duela 7 urteko antzeko puntu horretara iristeko? Kontuan

hartu barik gainera lana bilatzen dutenen kopurua jaitsi dela, hainbat gazte atzerrira doazelako, hainbat etorkin bere herrietara itzuli direlako, edo hainbat jende lana bilatzeaz "desanimatu" delako. Hori al da "bide ona"?

Baina "ekonomia" datu gutxi horiek baino askoz gehiago ere bada, pertsonen bizi baldintzen detaileetan ere neurtu liteke. Akaso %6ko langabezia tasara itzuliko gara etorkizunean, baina zelako enplegu motekin? Zelako aldi-baterakotasun kontratuekin? Zelako soldatekin? Emakumeek

soldata eta kontratu okerragoak izaten jarraituko al dute? Eta are gehiago, batzuek lana bilatzeari utziko al diote? Zelako desberdintasun mailarekin biziko al gara?

Batzuk krisiaz baliatu dira aberastasuna banatzeko eredu berri bat inposatzeko. Batzuen ahotan "errekuperazioaren kontsolidazioaren" urtea den 2015 honetan, Credit Suisse-k argitaratutako txostenaren arabera Espainiako Estatuan biztanleriaren %1 aberatsenak ondarearen %27,2a dute, eta %10 aberatsenak aberastasunaren %55,9a, aldi berean, txiroenen aldetik hasita, biztanleriaren erdiak, %50ak, ondare guztiaren %9,7 baino ez du. Beste batzuek Euskal Herrian aberastasunaren banaketaren datuak hobeak direla esango dute, ez da zaila izango ba. Baina hori ere, niretzat behintzat ez da nahikoa. Nora begira jarriko gara 2016an?

"Akaso %6ko langabezia tasara itzuliko gara etorkizunean, baina zelako enplegu motekin?"



**LIZARRALDE
SOINYA**

**Mota guztietako ekitaldien
soinuztapena**

Domingo Beltran 36, 5. B

Tel./Faxa: 945 22 69 77

txala@txala.euskalnet.net

01012 GASTEIZ

TXALAPARTA, S.L.



ALEA



JUANAN RUIZ

Arabako hainbat enpresa kolokan. Amaitzera doan urtea ez da ona izan Araban kokatuta dauden hainbat enpresarentzat. Asko hitz egin da azken hilabeteotan Laminaciones Arregi, Condesa, Aernnova edo Cegasa bezalako enpresa handiez egoera ekonomikoaz. Ezin ahaztu, aldi berean, egoera berean aurkitzen diren beste negozio txiki eta ertain asko.

Mercadona nonahi. Urtebete pasa da Mercadona supermerkatu kateak Euskal Herrian bere lehen denda zabaltu zuenetik; hain justu, Armentian. Ordutik, beste lau supermerkatu inauguratu ditu Arabako hiriburuan; azkena, abenduaren 15ean, Lakua auzoan. Horrez gain, bloke logistikoa eraikitzen dihardu Jundizen.

Bidaieriak Forondan.

Forondako aireportuak zeresana ematen dihardu. Aurten ere zama garraiatzeko erabili izan da bereziki; 2014ko datuekin alderatuta, %10eko igoera izan du. Bidaia-erregidarien hegaldiei dagokionez, nabarmen egin du gora udan izandako eskaintzari esker. Horrekin lotuta, lanean dihardute hegaldi erregularrak berreskuratzeko.



ALEA



KIDE

APAINDURA

Zerkabarren, 27
 ☎-Faxa: 945-14 41 95
GASTEIZ



Suspertze lanetan

Kulturak bizi duen 'utzikeria' borrokatzeko asmoz, kulturgileak eta publikoa batu dituen mahai sektoriala sortu dute aurten; besteak beste, programatzen diren ekitaldien arrakasta ebaluatzeko irizpide aldaketa proposatu dute. **A. AMENABAR** GASTEIZ

Zimeldutako kultura berriz loratzea. Helburu horrekin lanean ari da irailean aurkeztu zuten Arabako kulturaren mahaia. Lurraldearen egoera aztertu ondoren, kulturgintzak bizi duen "babesgabetasun, utzikeria eta noraezari" aurre egiteko beharrak bultzatuta antolatzea erabaki zuten alorreko hainbat profesional eta zalek, eta lehendabiziko pausoak eman dituzte dagoeneko. Arkitektura, arte eszenikoak, musika eta ikus-entzunezkoen inguruko mahaia osatu dituzte jada eta hainbat ekinaldi proposatu; besteak beste, kultura eskaintzaren zabalkunderako euskarri bateratua prestatzea eskatu dute edota programatzen diren

ekitaldien arrakasta ebaluatzeko irizpide berriak mahai gainean jarri dituzte. Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa osatzeko bidean lehenengo urratsak baino ez dira.

Helburua erakundeen eta politikoek aurrean indarrak batzea da, sektorearen mahaia osatzen duten kideen esanetan, baita herriarrei zuzentzea ere, kulturaren aldeko kontzientzia sortzeko asmoz. "Zentzugabekeria eta utzikeria kulturalari erantzun irmoa eman nahi diogu", azaldu zuten ekinaldiaren aurkezpenean.

Ilido beretik, Arabako Kultura diputatu berriak, Igone Martinez

de Lunak, legegintzaldi honetarako garatu behar duen planaren nondik norakoak zehazteko kulturaren mahaia bidelagun izango duela azaldu zion ALEA-ri urrian eskainitako elkarriketan. Haren asmoe-

tako bat Arabako herri guztien arteko "berdintasuna" bermatzea eta lurralde osoan "oreka egotea" dela nabarmendu zuen, horretarako aurretik kulturgintzaren diagnostikoa

egiteko asmoz: "Nonahi bizi garela ere, arabarrok kalitatezko kultur zerbitzua izatea". Lurralde oreka horri bilatze aldera, haren ustez interesgarria litzateke, esaterako,

Arabako konpainia eta aktoreak bildu ditu 40. Nazioarteko Antzerki Jaialdiak



Askotariko kulturgileak osatu dute sektoreko mahaia

ALEA

Gasteizko Nazioarteko Jaialdiaren edota Jazzaldiaren zenbait emanaldi hiriburutik kanpo eramatea.

Kultura diputatu izendatu berri hartutako lehenengo neurrien artean, bestalde, 2006tik aurrera foru sareko museoak dohainik izango direla iragarri zuen Martinez de Lunak, "ondarea ezagutarazi eta bisitari kopurua handitzeko helburuarekin".

Antzerkiak, 40 kandela

Sektoreko eragileek nabarmendu duten "lehortearren" artean, ordea, bada fruiturik, eta 2015. urteak horietako garrantzitsuak bildu ditu. Antzerkigileek, esate baterako, uzta oparoa utzi dute, tartean Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren berrogei

urteen ospakizunarekin. Nazioartetik heldutako antzezlan bikainekin batera, bertako sortzaileei keinu berezia egin eta lurraldeko konpainia, aktore eta antzerkizale ugariren arteko *Soplando velas* lana eskaini zuten Principal antzokian, Traspasos, Porpol, Teatro Paraiso, Pikor Teatro edo Panta Rhei taldeek.

Lurraldeko musika jaialdi ospetsuenek ere ez dute hutsik egin aurten. 26.000 lagun inguru elkartu zituen Azkena Rock jaialdiak Mendizabalako zelaian, ZZ Top, The White Buffalo, Black Mountain edota J.D. McPherson entzutera. Eta kritika zein publiko aldetik ere arrakastatsu joan zen 39. Jazzaldia; Mendizorrotza txiki geratu zen Jose

James edota Chick Corea eta Herbie Hancocken kontzertuetarako. Gasteizko alde zaharreko Jazzarreanek, Gastroswing jaialdiak, Kaldeartek, Big Band Jaialdiak edota Magialdiak ere musika eta ikuskizuna eraman zuten hamaika txokotara.

Gasteiz, Agurain edota Laudio-ko literatura klubek geroz eta irakurzale gehiago biltzen dituzten bitartean, gainera, aurren lehenengo Liburu eta Disko Azoka ospatu dute Arabako Errioxan, aurrerrantzean ere antolatuko dutena. Eta literaturak bezala, loraldi ederra bizi du Araban bertsolaritzak ere; asteroko bertso saio zurrunbiloaren artean, ehunka lagun batu zituen Manex Agirre txapeldun izan zen Arabako Bertsolari Txapelketak.




Oihanetik, ozenago

Arabian euskaraz aritzeko baliabide eta tresnak areagotuz doaz urtez urte. Mintzalagun sarea are gehiago zabaldu da lurraldean aurtan eta hiriburua jardueraz bete du Oihaneder Euskararen Etxeak, beste hainbat ekinaldiren artean. **A. AMENABAR** GASTEIZ

Euskararen arnaguneak zabalduz doaz Arabian. Euskaraz bizitzeko tresnak ugaritzen ari dira eta horren adibide garrantzitsua da urrian urtebete egin duen Oihaneder Euskararen Etxea. Hamaika hitzaldi, ikastaro, kontzertu, emanaldi eskaini dituzte eta aurrera begira ere "erronka ugari" dituzte zain. Lazarraga elkartearen eskutik, Hitz adina mintzo, Eskilarapeko soinuak, SolasAlean edota Ilunabarrean dantzan jarduera arrakastatsuekin bete dute muinoko jauregia eta hiriburuko beste hainbat txoko. Lurraldeko lau bazterretan, gainera, euskaldunen katea zabalduz doa Sarburu, Geu, Amezti, Biarra, Ega Garaia, Txingoka, Ttiki-Ttaka, Txirritola eta beste hamaika elkarteren lanari esker.



Geu elkarteak antolatzen duen Igandeak Jai egitasmoa ikuskizunetako bat. | ALEA





Euskararen aldeko taldeek eguneroko egiten duten lanarekin batera, egun berezietan antolatu eta milaka euskaltzale mugiarazteko gai direla erakutsi dute sarri eta, aurretik ere hainbat adibide izan dira. Bi urtean behin izaten den legez, Korrika izan da adierazgarrienetakoa 2015ean. Urepeletik Bilbora egindako korrikaldiak milaka lagun batu zituen Arabako herri eta kaleetan *Euskaldun* goiburua, eta haren inguruan egindako jarduerak ugaritan ere ehunka lagunek parte hartu zuten.

2016an, Agurainera

Araba Euskaraz ere milaka euskaltzaleren topaleku izaten da urtero, eta 2015ean Oiongo San Bizente ikastolak antolatutako jaialdira jendetza gerturatu zen ekainaren 14an; Gasteizko Armentia inguruetan antolatzea erabaki zuten, jende gehiagorengana heldu eta Arabako Errioxako euskaltzaleen egoera ezagutzera emateko asmoz, *piztu euskara* leloa. Oiongo ikastolari lekukoa hartu dio Aguraingo Lautada ikastolak *Geroari begira* leloa, eta dagoeneko hasi dira prestaketa lanetan, ekainaren 19an dena prest izan dadin. "Erronka gastronomiko

bat prestatzen ari gara, hain zuzen ere gurasoek parte har dezaten. Euskalduntze prozesuan helduok dugun zeregina azpimarratu behar dugu eta dakigun guztia erabili behar dugula gogoratu", adierazi zuen Araba Euskarazeko koordinatzaile Anjel Olalde ALEAN eginko elkarriketetan.

Euskararen alde izatetik euskaraz ikasi eta hitz egitera igaro diren

lagunen kopurua ere hazten ari da urtero. Hala, Mintzalaguna egitasmoak sare zabala osatu du lurraldean eta dagoeneko mila bat lagun elkartzen dira astero Aiaraldean, Gorbaildean, Lautadan, Mendialdean eta Arabako Errioxan; sei bat laguneko taldeetan euskaraz egin eta euskaraz ikasten dabiltzanek mintza praktika egiteko aukera izango dute. Euskara ozenago entzuteko.

TXOKO GORRI TABERNA

Pintxorik onenak, girorik hoberenean

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!



Iturralde, 1
AMURRIO
Tel.: 945 89 24 37

MANUEL MORENO

TOPAGUNEKO ARABAKO SUSTATZAILEA

Batetik nahia, bestetik aukera



Batetik, euskaldunok zenbat eta nolakoak garen dago, bestetik, euskaldunok euskaraz egiten duguna eta egin genezakeena. Zenbat gara? Nabarduretarako aukerarik ez, idazki mugatu honetan, eta hona hemen datu hotzak: 2011. urtean, 5 urte edo gehiagoko 74.383 arabarrek, euskara zuten haien hizkuntzetako bat, adin tarte horretakoen %24k. Beste 81.200 dira hitz egiteko beste ez badakite ere, euskara ulertzen dutenak, %26. Euskaraz trebetasunik ez dutenak %50 dira, 150.000 arabar inguru.

Nolakoak gara? Bost urte edo gehiagoko euskaldunak, gaztele-radunak ere bagara, hau da, geu gara elebidunak. Horrez gain, arabiera, frantsesa, urdu, ingele-sa, wolof, ketxua, errumanie-ra,..., badaki hainbatek. Arabako euskaldun gehienok, %70, euskaldun-berriak gara, hau da, eskolak edo euskaltegiek euskal-dunduta, ez gurasoek. Aurrekoaren ondorioz, ia denok, euskal-dun alfabetatuak gara. Gazteak gara, ez denok, noski, baina bai gehiengo zabala. Bost eta 24 urte bitarteko arabarren hirutik bik badaki euskaraz. Gehienok, erdal elebidunak gara, hau da, gaitasun komunikatibo apalagoa dugu euskaraz, gazteleraz baino. Hiztun komunitate dispersoa gara, hau da, gehienok, euskaraz egiten

ez dakiten senide, lankide, ikaskide, adiskide, bikotekide edota auzokideekin konpartitzen dugu egunerokotasuna.

Zer egiten dugu? Denetarik, noski, eta gehienok, gehiena, gazteleraz. Telebista ikusten dugu, kirola praktikatzen dugu, ahal dugunok lan egiten dugu, saldu eta erosi egiten dugu, zinera joan, Udala, Kuadrilla, Aldundiarekin harremana izaten dugu, aisialdiaz gozatu, prentsa irakurri, ikasi, Internet eta sare sozialak erabili, lagun, senide, lankideekin hitz

egin,... Hala ere, izan bagara, euskara, zenbait kontutarako, gero eta gehiagotarako, zorionez, erabiltzen dugunok ere. Azken hau horrela da, lehenengo eta behin, guk horrela nahi dugula-ko, baina baita ere, horretarako aukera dugulako. Aukera dugu, alde batetik, euskaraz dakigulako eta bestetik, euskaraz egiten dugun hori, euskaraz egitea badagoelako.

Zer egin genezake? Ahal izatea eta nahi izatea omen dira erabileraren gakoak, hurrenkera

honetan edo alderantziz. Zenbatetan izaten dugu posible, ordea, egin nahi duguna, egin nahi dugunean, euskaraz egitea? Gutxitan, egia esanda, baina, gero eta gehiagotan, hala ere.

Euskaldunok Araban, lehen baino tresna eta aukera gehiago dugu euskaldun bizitzeko. Aukera

"Ahal izatea eta nahi izatea omen dira erabileraren gakoak, hurrenkera honetan edo alderantziz"

"Euskaldunok Araban, lehen baino tresna eta aukera gehiago dugu euskaldun bizitzeko"

"Zorionak eta urte berri on

BERRIari eta euskaltzale guztiei!"



AMURRIOKO UDALA





gehiago dugu, adibidez, gure inguruan gertatzen denaren berri euskaraz jasotzeko eta guk geuk inguratzen gaituena euskaraz zabaltzeko. Lehendik genituenez gain, orain, Aiaraldeko egunkaria dugu, bere eremuko irakurriena eta biztanleen %73rengana iristen dena, ALEA aldizkari hau dugu, astero milaka arabarregana herrialde osoko askotariko informazioa, euskaraz, hurbiltzen duena, *alea.eus* atari digitala labean dugu, heltzear eta Hala BediBI irratia dugu, udazkenean saio berriak abiatu dituen. Hedabide hauek, gainera, komunikabide ere badira eta hizkuntza komunitatea; erregai, erreferente eta helburu dutenez, dispartzioa gaindizten laguntzen dute.

Euskaldunok Araban baditugu euskara elkar-

teak, euskaltegiak, ikastetxeak, kantu, antzerki, bertso eta musika talde edo eskolak, berba eta mintzalagunak, kultur eta aisialdi ekimenak, Euskararen etxea, euskara teknikariak, plangintza orokorrak, ... Horiek guztiek, izateko eta bizitzeko tresnak, guneak eta uneak eskaintzen dizkigute euskaldunoi. Horiek guztiak beharrezko ditugu, horiek guztiak eta gehiago, horiek guztiak eta horiek bizitzeko gogoa. Izan ere, aukerak nahia eta ohitura ekar ditzake, nahiak aukera sor dezake, sortu egin du, sarri, gurean.

Bietan jarraitzea dagokigu, beraz, izateko nahia eta aukera, bi-biak, Araban eta arabarren artean sustatu, saiatu, sortu, asmatu, elikatu, hedatu. Badihardugu, jarrai dezagun.



**Euskara behar dugu,
euskarak behar gaitu!**

ZIGOITIA

UDALETXEA

Bengolarra, 1

01138 ONDATEGI

Tel.: 945-46 40 41

Faxa: 945-46 40 52

zigoitia@zigoitia.eus

www.zigoitia.eus



Gorako bidean

Baskoniak eta Alavesek antzeko ibilbideak egin dituzte 2015. urtean. lazko denboraldia gorabehera ugarirekin igaro baldin bazuten, 2015-2016a sendotasun harrigarritz hasi dute biek ala biek. **KOLDO AKORDARREMENTERIA** GASTEIZ

A modioak, diru-aurrezpenak, gimnasioko errutina gogorrak ... Udan hasi eta udan bukatzen dira bizitzako kontu asko. Kirolak ere udan izaten du gogoetarako sasoirik egokiena. Denboraldian zehar taldeek egindakoa aztertu eta erabaki zailak hartzeko unea izaten da. Garai hauetan izaten dute, hain zuzen ere, lan-eskerga handiena talde handietako egitura teknikoek.

Hastera doana bukatu berri dena baino hobea izan dadin aritzen dira lanean. Fitxaketak, kaleratzeak, zaletuekiko komunikazio berriak... Bada, ematen du 2015eko udan oso fin aritu direla Alaves eta Baskoniako kirol arloko teknikariak eta bada-goela zer amestu heltzear dagoen 2016. urtean.

Baskoniak txanponaren ifrentzu biak erakutsi ditu aurten. Talde beldurti eta ahula izatetik, uda ostean aspaldian Gasteizen ikusi den talde erregularrena izatera igaro da. Kirola ez da justizia kontua izaten eta emaitza positiboak heltzen joan diren heinean hasi dira zaletuak zelaira erruz hurbiltzen.

Talde ahula izatetik, erregularrena izatera pasa da Baskonia aurten



Urrian heldu zen Ioannis Bourousis Baskoniara.

BASKONIA



Ioannis Bourousisek, eta aurtengo fitxaketak hain berezko duen kalitateak, ia bakarrik erabakita utzi zituen denboraldi hasierako partida batzuk. Gerora, baina, talde osoaren inplikazioa esnatu da. Darius Adams eta Mike James antolatzaileen ekarpena ezinbestekoa izaten ari da eta oso azpimarratzekoa da taldea barnealdean erakusten ari den sendotasun maila. Urte bukaeran, taldea ACB Ligako 4. postuan dago sailkatuta eta Euroligako Top 16an sartu da estu-sunik igaro gabe. Aurrikuspenik positiboenetan ere gutxiak pentsatuko lukete halako egoera eroso lortuko zenik abenduan.

Bide paraleloak

Futbol kontuetan ere, 2015. urte bukaera hasiera baino askoz hobea izaten ari da. Iazko denboraldia taularen erdialdean eman zuten babazorroek eta guztiz erosoak ez den 13. postuan bukatu zuten liga. Zuzendaritzak ez zuen modu positiboan baloratu Alberto Lopez entrenatzailearen lana eta honen kargua Jose Bordalasi eskaini zioten. Alcorconekin gauza txukunak egitetik



Ligako bigarren postura heldu da Palmas Gabonetan.

ALAVES

TREBINU SAGARDOTEGIA



ARABAKO
SAGARDO
EKOIZLEAK

Iturrieta
sagardotegia



Tel.: 945-24 48 52
657-73 65 99

ASKARTZA
TREBIÑU

Arraga auzoa / ARAMAIO
945-44 53 85 / 685-72 15 92
iturrietasagardotegia.bolgsport.com



Giroko sailkapenean hirugarren amaitu du Mikel Landak.

ITSASO ESTARRONA

zetorren Alacantekoa eta, momentuz, oso gauza itxurosoak egin ditu taldearekin. Gaizka Toqueroren fitxaketak oihartzun handia izan zuen futbolaren munduan. Beti bezala, afizioaren berotasuna hurbiletik sentitzen du gasteiztarrek Alavesen ere eta jokalariai garai bateko maila bera erakutsi du taldearentzat ezinbesteko bihurtuz. Bigarren fitxaketa aipagarria Fernando Pachecore-

na izan da urte honetan. Real Madriletik etorritako atezain honek hiru urterako sinatu du eta sekulako maila erakutsi du partida guztietan.

Errugbi inklusiboaren munduko txapeldun da Gaztedi taldea

2015-2016 denboraldiari gogoz ekin diote. Bederatzigarren jardunaldian bazirudien taldeak iazko antzeko itxura eman behar zuela, baina azaro eta abenduan sekulako emaitzak lortu ditu eta Gabonetara Ligako bigarren postuan iritsi dira.

Dena erabakitzeke dago oraindik, baina batzuk hasiak dira jada iraganeko loriak gogorarazten. Igoera kontuak urruti dauden arren, ez du inork ahaztu behar azken hamabi urteetan haxe dela berriro ere maila gorenera iristeko Alavesek izan duen aukerarik argiena.

Izen propioak

Arabako kirolak izen propio bat izan baldin badu urte honetan, halere, hori Mikel Landarena izan da. Murgia txirrindulariak berebiziko urtea egin du eta garrantzia izugarria duten lau garaipen lortu ditu orotara, denak ere aldapan gora: etapa bat Euskal Herriko Itzulian, bi Italiako Giroan eta beste etapa bat Espainiako Vueltan. Guzti horrez gain, Italiako lasterketako podiumera ere igo zen; sailkapena hirugarren postuan amaitu baitzuen.

Balentria horiek lortzeak UCI Pro Tourreko talde sendoenaren ateak ireki dizkio eta 2015-2016 denboraldian Sky Team talde britaniarrarekin arituko da. Astana bezalako bloke indartsua uztea ere zaila izan da murgiar txirrindulariarentzat, baina Kazhastango taldeak bestelako lehentasunak zituela ikusita, nola esan ba ezetz jasotako eskaintzari.

Errugbiaren eskutik heldu da, bestetik, bestelako kirol-berri pozgarriena. Izan ere, Gasteizeko Escor Gaztedi Errugbi taldeak, errugbi inklusiboaren baloreen munduko txapeldun izatea lortu du. Bradfor-den jokatu zen txapelketa udan eta bederatzi herrialdetik joandako hamabi taldek hartu zuten parte.



"Eskerrik asko parkean eman
ditugun astearte-arratsalde
guztiengatik"

Iker



HITZAKOPARI
.com

BADAKIZU ZER OPARITU AURTENGO GABONETAN?

Esaldi hauetakoren bat, adibidez: "Maite zaitut" edo "Eskerrik asko beti nirekin egoteagatik". Edo "Barkatu", edo esatea hainbeste kostatzen zaizun hitz hori. Hona aurtengo Gabonetarako Euskaltelen gonbidapena: kontatu nahi duzuna maite duzun horri.

Sartu **hitzakopari.com** gunean, eta opari bat sortzen eta bidaltzen lagunduko dizugu.

Maite dituzunekin jarduteko minutu edo datu gehiago behar badituzu, opari emango dizkizugu.

Doakoak dira, izan ere, oparirik baliotsuenak

Sartu, eta sortu zure oparia
hitzakopari.com-en

euskaltel

Babesle teknologikoa:

...orain, Laudioko kultur eta gizarte agenda, edonon

@LaudiokoUdala
twitter kontuan nahi beste informazio!



LAUDIO

Kalea bizi!



LAUDIO UDALA